

 Print PDF Style Images Edit Highlight Delete Undo Close Settings

Puntako teknologia euskaraz



Euskarari eta teknologiari buruzko solasaldia, atzo, Donostian.

MAIALEN ANDRES / FOKU [Tamaina handiagoan ikusi](#)

«Ez dut ulertu, baina egunero ikasten dira gauza berriak», erran zuen *Mycroft* bozgorailu adimendunak Igor Leturia ikertzaileak galdera bat egin zionean. Gaur egun, munduko nahiz Euskal Herriko edozein etxetan aurkitu daitezke tresna horiek, enpresa erraldoiek sortutakoak guztiak. Horiek, baina, ez dute euskara ulertzeko eta euskaraz mintzatzeko gaitasunik. Teks taldea garatzen ari den *Mycroft* bozgorailuak, ordea, bai.

Hori bezalako gailu, tresna eta sistema andana bat erakutsi zuten atzo Donostiako Tabakalera. *Etorkizuna eraikiz* kongresuaren barruan, eta, Badalabek antolatuta, euskara eta teknologia uztartu zituzten atzoko saioan. Hala, galdera hau erantzuten ahalegindu ziren zenbait aditu: